



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko apirilaren 30a

55. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epea luzatzea (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Interpelazioa, despopulazioaren aurkako borrokaren eta Nafarroak aurre egin beharreko erronka demografikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkeztu du (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-partida bat egon dadin toki entitatei dirulaguntzak emateko deialdia egin ahal izateko, nork bere plan integralak ezarri ahal izan ditzan irisgarritasunaren arloari dagokionez. Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (4. or.).

—Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea sor dezan. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da etxerik gabeko pertsonentzako ostatuen egungo kudeaketa-ereduaren ebaluazioa egin dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da bi biribilgune egin ditzan N-134an, Azagran. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue 2021 Plan Globalean beharrezkoak diren jarduketak zorrotasunez eta epean egin ditzan. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hezkuntzaren aldeko Munduko Ekintza Astearen ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu amiantoa kentzeko ekintza-planen garapenean aurrerapausoak ematen segitzea. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere doluminak eta txera adierazten baitizkie David Beriain nafar kazetariaren, Roberto Fraile kamerariaren eta iparrilandar kooperante baten familiei eta hurbilekoei. Aipatuak talde armatu baten eskuetan erailak izan ziren Burkina Fason dokumental bat grabatzen ari zirelarik. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Israelgo Estatuak iragan apirilaren 13an Zisjordanian Juana Ruiz Sánchez langile humanitarioa aurretiazko akusaziorik gabe atxilotu izana. Eledunen Batzarrak onetsia (12. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Antzingo Lokiz Eskola Publikoko jantokiaren kudeaketari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Belosoko Hegoaldeko Erripan alokairu sozialerako 93 etxebizitza eraikitzeari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (13. or.).
- Galdera, gazteentzat uda honetarako prestatzen ari den aisialdi-eskaintzari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (14. or.).
- Galdera, sexu-indarkeriaren biktimei 24 orduko arreta integrala emateko zerbitzua abian jartzeari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateak Suspertze Planeko birgaitzeko eta hiria berroneratzeko funtsetan parte hartzeari buruzkoa. María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Nasuvinsaren Beloso Hegoaldeko Erripako alokairuko etxebizitza-sustapenari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, espetxeko tailer eta batzar errestauratiboei buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Zigor Betearazpenaren Nafarroako sistemari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Lodosako Cabizgordoko industrialdeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, espetxe arloko eskumenak Nafarroari eskualdatzeari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, zigor betearazpenaren eredu berriari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, “Ega-Urederra ibaiak” izeneko Batasunaren Garrantzizko Lekuko Kontserbazio Bereziko Ere-muaren (KBE) kudeaketa-gastuei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Allozko (Deierri) lurzatiak biltzeko prozesuari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Iruña-Noaingo aireportua garatzeari eta bultzatzeari buruzkoa. Garapen Ekonomiko eta Enpresari-aleko Batzordean izapidetzea (21. or.).
- Galdera, hezkuntza eleanitza indartze eta hobetze aldera Nafarroako Gobernuak hartu nahi dituen neurriei buruzkoa. Hezkuntza Batzordean izapidetzea (21. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru jurista hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (22. or.).
- Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda aldatzea (22. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektua.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 108. artikularekin bat, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Nafarroako Fundazioei buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2021eko maiatzaren 17ko 12:00ak arte** luzatzea. Foru Lege proiektua 2021eko urtarrilaren 15eko 3.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-20/LEY-00021).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Interpelazioa, despopulazioaren aurkako borrokaren eta Nafarroak aurre egin beharreko erronka demografikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.**

*JORGE AGUIRRE OVIEDO JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkezturiko interpelazioa, despopulazioaren aurkako borrokaren eta Nafarroak aurre egin beharreko erronka demografikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Jorge Aguirre Oviedo jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau egiten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Interpelazioa, Lurralde Kohesiorako Departamentuak despopulazioaren aurkako borrokan garatuko duen politika orokorrari eta gure erkidegoak aurre egin beharreko erronka demografikoaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2021eko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Jorge Aguirre Oviedo

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aurrekontu-partida bat egon dadin toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia egin ahal izateko, nork bere plan integralak ezarri ahal izan ditzan irisgarritasunaren arloari dagokionez.**

*NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako

Gobernua premiatzen baita aurrekontu-partida bat egon dadin toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia egin ahal izateko, nork bere plan integralak ezarri ahal izan ditzan irisgarritasunaren arloari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3. Mozioa** Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Irigarritasun Unibertsalari buruzko ekainaren 14ko 12/2018 Foru Legearen arabera, irigarritasun unibertsala da inguruneek, prozesuek, ondarenek, produktuek eta zerbitzuek zein objektuek, tresnek, bitartekoek eta gailuek bete behar duten baldintza, pertsona orok ulertu eta erabiltzeko modukoak izateko, segurtasunez eta erosotasunez eta ahalik eta autonomia eta naturaltasun handienaz betiere. Printzipio horrek "diseinu unibertsalaren edo pertsona ororentzako diseinua" estrategia du abiapuntu, eta ulertzen da egin beharrekoak diren arazoizko egokitzapenak ezertan galarazi gabe.

Legeak orobat jasotzen du Nafarroak Irigarritasun Unibertsalari buruzko foru lege bat behar duela, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioarekin eta araudi eta estrategia berrienekin bat etorriko dena, helburua izanik aurrera egiten segitzea gizarte inklusiboagoa eta irigarriagoa lortzeko bidean, pertsonen autonomia bermatzeko, diskriminazioa saihesteko, eta pertsona guztien aukera-berdintasuna bultzatzeko; batez ere, desgaitasuna duten pertsonena, zaharrena eta, aldi baterako bada ere, ingurunearekin harremanak izateko zailtasunak dituztenena. Irigarritasuna beharrezkoa dela ulertu behar da, baina ez bakarrik desgaitasuna

dutenentzat, baizik eta bizitzaren etapa desberdinetan horren onurak jaso ditzaketen guztientzat.

Eta bigarren xedapen gehigarriak behartzen gaitu toki entitateek egokitu beharreko plan integralak onestera. Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, Nafarroako toki entitateek irigarritasun unibertsalaren arloko jarduketa plan integral bana aurkeztuko dute, eta haietan aztertuko dira bai araudi guztia bai foru lege honen aplikazio esparrua osatzen duen errealitate objektiboa, foru legean ezarritako irigarritasun unibertsalerako neurrietara pixkanaka egokitzen joateko, edo, kasua bada, arazoizko egokitzapenak gauzatzeko, neurriak, egutegia eta beharrezkoak diren diru zenbatekoak ere zehaztuta. Hori ez da eragozpen izanen foru lege honek dakartzan betebeharrak berehalakoan betetzeko.

Gure ustez, hortaz, inoiz baino beharrezkoagoa da toki entitateek baliabide teknikoak eta ekonomikoak eduki ahal izatea legeak agindutakoa betetzeko eta aukera-, tratu- eta baldintza-berdintasunez artatu ahal izateko beren bizilagunak.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du datozen aurrekontu orokorretan partida bat egon dadin toki entitateei dirulaguntzak emateko deialdia egin ahal izateko, nork bere plan integralak ezarri ahal izan ditzan irigarritasunaren arloari dagokionez; plan horietan, bai araudi guztia bai foru lege horren aplikazio esparrua osatzen duen errealitate objektiboa aztertuko da, foru legean ezarritako irigarritasun unibertsalerako neurrietara pixkanaka egokitzen joateko, edo, kasua bada, arazoizko egokitzapenak gauzatzeko, neurriak, egutegia eta beharrezkoak diren diru zenbatekoak ere zehaztuta.

Iruñean, 2021eko apirilaren 16an

Eledunak: Mikel Buil García eta Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez Espainiako Gobernua premiatzen da Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea sor dezan.**

### *AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea sor dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeko, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Kontuan hartuta lurralde kohesioak zeharkako ardatz bat izan behar duela Nafarroa guztiko gazteen bizi-kalitatea hobetzea sustatzeko, Gazteriari buruzko 2021-2023 aldirako Foru Estrategiak ikuskera deszentralizatu eta kolaboratiboa hartzen du tokiko gazteria-zerbitzuekiko lankidetzaren areagotzeko.

Gazte politiken zeharkakotasuna beharrezkoa da politika horiek benetan eragingarriak izan daitezen, eta beharrezkoa da Nafarroako administrazio guztien arteko lankidetzaren bereziki, tokiko esparruan; izan ere, Gazteriari buruzko Foru Legearen 7. artikulua araberaren arabera, Nafarroako toki entitateena da gazteriaren arloko eskumena beren lurralde-eremuan.

Gazteriari buruzko Foru Legearen 6.3 artikulua ezartzen duenez, gazteriaren arloko eskumena duen departamentuak erregelamendu bidez sortzen eta ezartzen ahalko ditu Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordearen eginkizunak, osaera eta funtzionamendu-arauak, Nafarroako

Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako toki entitateek gazteriaren arloan lankidetzaren administrazioa izateko organo gisa.

Nafarroako Gazteriaren Institutua jardunean izan den azken urteotako esperientziak beharrezkoa egiten du batzordea eratzea eta erregulatzea; alde batetik, toki entitateek parte-hartzea areagotzeko, eta beste alde batetik, tokian-tokian sareko lan-sistema bat sustatzeko, jarduera iraunkorrago, egonkorrago eta espezializatuago bat dinamizatuko duten lantaldeak sortu ahal izateko.

Gainera, egoera honetan are nabarmenago egin behar da gazte politiken funtsezkeratasuna, argi utzita politika horiek sendotzeak ekarpen estrategiko bat dakarrela, zerbitzuak areagotuta gazteei entzun, arreta eman eta laguntzeko gaitasunarekin, ez etorkizuneko balio gisa, ezpada errealitate oso eta eztabaidaezin gisa. Eta funtsezkeratasun horren aitzinean, zentzu osoa du udalen gazte politikak behar bezala koordinatuta egoteko errebindikazioak.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gazteriari buruzko Foru Legearen 6.3 artikuluan ezarritakoa gara dezan Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordearen sorrerari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Nafarroako toki entitateek gazteriaren arloan lankidetzaren administrazioa izateko organo gisa, eta udal-entitateen egiazko koordinazio bat artikulatu dezan gazteei zuzendutako zeharkako politika publikoei dagokienez.

**2.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatua lan egin dezan tokiko esparruan gazteriarentzako aisia-alternatibak bermatzeko, eta jarduerak garatzeko gune seguruak eskaini dituzan, onartuta hezkuntza-aisia, aisialdia eta hartatik heldu den erkidego-garapena ere jorratu behar direla bizi dugun egoera honetan, kontuan hartuta betiere COVID-19ak eragindako inguruabarrak direla-eta araudiak ezartzen dituen murrizketak.

**3.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako toki entitateak premiatzen ditu gazteriarekiko elkarriketa-guneak berma dituzan heldu udari begira aisia-alternatibak sustatzeko, osasun-egoerak ez

baitu ahalbidetuko udan ohikoak diren jarduerak normaltasunez garatzea. Horretarako, inplikatur dauden erakundeen bidez, beharrezkoa den aholkularitza emanen da, udalek, gazte elkarteek

eta gazteriaren arloko elkarte profesionalak beren jarduerak egin ahal izan ditzaten.

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da etxerik gabeko pertsonentzako ostatuen egungo kudeaketa-ereduaren ebaluazioa egin dezan.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA ETA GEROA BAI TALDE PARLAMENTARIOEK ETA NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita etxerik gabeko pertsonentzako ostatuen egungo kudeaketa-ereduaren ebaluazioa egin dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

COVID-19aren osasun krisiak ondorio larriak izan ditu, maila sozial eta ekonomikoan, herritar guztientzat, baina bereziki egoera ahulago betetik iristen zirenentzat.

Horien artean ditugu etxerik gabeko pertsonak, pandemian angustia bikoitza bizi izan dutenak, gaixotu ahal izatea eta babesteko norberaren etxea ez edukitzea.

Nafarroan berehala prestatu ziren bizitegi baliabideak, pertsona horiek babestuta egon eta oinarrizko beharrianak estalita eduki zituzten.

Nafarroak hiru udal aterpe izan ohi ditu: Iruñekoa, Tuterakoa eta Altsasukoa, etxegabetasun egoeran dauden pertsonak hartzen dituztenak. Udal aterpe horiek Nafarroako Gobernuak kofinantzatzen ditu.

Joan den legegintzaldian ere Housing First programa abiarazi zuen Foru Administrazioak.

Etxegabetasunaren arazoari heltzeko ereduak laguntzakoak eta aringarriak izaten ziren, ostatzearen behin-behinekotasunean oinarriturik. Gizarteratzea ez lortzeaz gain, egoera horiek kronifikatzen lagundu dute, pertsona horiei osasun fisiko ets psikikoaren arazo larriak ekarrita.

2030 Agendako garapen jasangarriko helburuen artean dago etxegabetasuna desagerraraztea, gizarte zuzenagoa, inklusiboagoa eta jasangarriagoa lortzeko bide bakar gisa.

Gure ustez, helburu hori arrakastaz betetzeko apustu egin behar da eredu berritzaileen alde, erdigunean etxebizitza edukita, housing first programaren modura. Pertsonengana bideratutako arreta ereduak, arazoaren kudeaketatik harago iritsiko direnak, haien xedeak, gogoak, indarguneak eta bizi-aldia kontuan hartzen dituztenak, ez bakarrik arazoak.

Gizarteratzerako bideak eskatzen du akonpainamendu pertsonalizatu eta espezializatu ematea autonomiarako berreskuratze pertsonalaren prozesuak hasten direnei, erabakitzen dituzten bizi-arloetan (pertsonala, harremanetakoak, osasunekoak, ekonomikoak/lanekoak), bizitza garatzeko elkarbizitzako esparru egonkor bat bermatuta.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

a. Gure Erkidegoan diren etxerik gabeko pertsonentzako ostaturen egungo kudeaketa-ereduaren ebaluazioa egin dezan.

b. Aipatu ereduak berrikus ditzan, erdigunea pertsonarengan jartzen duen arreta-ikuspegi batekin, integrala eta etxegabetasun egoeran diren autonomiara eta gizarteratzera bideratuak.

c. Berrikusketa hori genero ikuspegiarekin egin dezan.

d. Esku-hartze ereduak ezar eta bultzatzen, etxebizitza ardatz edukita, hala etxebizitza indibidualak (Housing first) nola partekatutako (Housing Led, cohousing ...).

e. Etxerik gabeko pertsonen zuzendutako programetan osasun baliabide bereziak sar ditzan, bereziki osasun mentalekoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, Estatuako plan bat onetsi dezan, autonomia-erkidegoekin koordinatuta, etxerik gabekoen joa-etorriak murrizteko eta haien errozteza sustatzeko.

Iruñean, 2021eko apirilaren 20an

Foru parlamentariak: Nuria Medina Santos, Isabel Aranburu Bergua eta Mikel Buil García

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da bi biribilgune egin ditzan N-134an, Azagran.**

### *JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bi biribilgune egin ditzan N-134an, Azagran.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Batzordean eztabaidatzeko, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bi biribilgune egin ditzan N-134an, Azagran.

N-134 errepublikan, Azagra parean, bi biribilgune eraikitze inbertsioa egin behar da premiaz: Milagrorako irteerako biribilgunea, eta San Adriana sartzeko biribilgunea. Helburu bakarra bidearen segurtasuna hobetzea eta bermatzea da.

Bere garaian planteatutako saihezbidea egitea zaila denez, biribilguneak egiteak balio du segurtasuna hobetzeko, ibilgailuen abiadura murrizteko eta herriko eta industrialdeetako sarbideak errazteko.

Nafarroako Arartekoaren ebazpen baten bidez, Nafarroako Gobernuari iradoki zioten Azagrako zeharbideko bide-segurtasuna hobetzeko neurriak har zitzala. Bereziki, iradokitzen du bere garaian planteatutako saihezbidea egiten ez den bitartean, segurtasuna hobetzeko balioko duten biribilguneak egitea, ibilgailuen abiadura murrizte aldera.

Azagrako Udalak hainbat aldiz eskatu du herriko zeharbidean izaten diren bide-segurtasuneko arazoak konpontzeko. Azagrako herrigunea bitan zatitzen duen eta kilometro eta erdian zeharkatzen duen bidea da.

Bide horretatik 5.500 ibilgailu baino gehiago ibiltzen dira egunero. Horietako asko tonaje handikoak dira, eta Azagra industrialdean dauden enpresei zerbitzua ematera joaten dira. Egoera



hori larriagotu egiten da inguruan bi ikastetxe daudelako (ikastetxe publikoa eta institutua).

Lurralde Kohesiorako Departamentuak, berriki, herriko udalarekin akordio batera iristeko aukera baztertu zuen, argudiatuta departamentuak saihe-bide-proiektu batean lan egiteko asmoa duela.

Gaur egun, Azagrako saihe-bidearen proiektua geldituta dago jarduketa berriei ekiteko nahikoa funts ez dagoelako, eta NA-134an, Azagra parean, biribilgunea eraikitzeke proposamena aztertu beharreko aukera bat izan liteke.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Lurralde Kohesiorako Departamentua premiatzen du honako hauek egin ditzan:

1. Premiaz diseina dezan San Adriandik, N-134 errepidetik, herrira sartzeko biribilgunea eraikitzeke proiektua.

2. Azagrako Udalarekin lankidetzak akordio bat adostu dezan, N-134 errepidearen segurtasun-hobekuntza finantzatzeko, herritik igarotzen den tartean. Horretarako, bi biribilgune eraikiko dira: Milagrorako irteerako biribilgunea eta San Adriandik sartzeko biribilgunea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## **Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da Donejakue 2021 Plan Globalean beharrezkoak diren jarduketak zorrotasunez eta epean egin ditzan.**

### *ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Donejakue 2021 Plan Globalean beharrezkoak diren jarduketak zorrotasunez eta epean egin ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, 2021ean Donejakue Urtea ospatzeari buruzko honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Navarra Suma talde parlamentarioaren hainbat ekimeni erantzunez, Donejakue bidearen arloko jarduketa batzuk aipatu dizkigute, zehazki, Donejakue 21 gertakariaren ospakizuna.

Udal asko kezkatu agertu dira beren inguruetan eta Bidearen esparruan ez delako inolako jarduketarik burutzen ari, eta aurreikusten dute pandemian zehar ezarritako mugimendu-murrizketen ondorioz zapuztu eginen direla ekonomia, turismo eta kultura arloetako itxaropenak, sektorean, oro har, eta Bidearen arloan bereziki, galeren etapa bat gainditzeari buruz zituztenak.

Kulturaren eta turismoaren industriako egiturak sendotzeko, beharrezkoa da eskaria akuilatzea, eta 2021eko Donejakue Urtea bezalako gertakizunak estrategikoak dira bi sektore horiei begira, baina baita landa garapenari eta lurralde kohe-sioari begira ere.

2021eko Donejakue Urteari esker, turismo, ekonomia eta kultur baliabideak berreskuratzen ahalko lirateke bidean zehar. Horiek denak optimizatu egin behar dira, COVID-19a baino lehenagoko kalitate-mailara iristeko harrerari eta eskariari dagokienez. Bizi dugun egoeraren arabera helburuak birformulatzeko eta erronka berriak planteatzeko aukera bat da. Nazioartean ezaguna den ospakizun hau baliatu behar dugu Nafarroa

kultur turismoko destino gisa, osasunaren aldetik segurua, berariaz proiektatzeko, turismoaren ikuspegia epe ertainerako ere prestatuz, eta monumentu-ondarea mantentzearen eta leheneratzearen arloko jarduketek ekitzeko. Nafarroa erreferente izan daiteke kultur turismoaren kontserbazioan eta kudeaketan.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du:

- Donejakue 2021 Plan Globalean beharrezkoak diren jarduketak zorrotasunez eta epean egin ditzen.

- Beharrezkoak diren baliabideak erabiltzea maila guztietan, Donejakue 2021 Plan Globaleko jarduerari ekitzeko.

- Harremanetan jartzea berehala Donejakue 2021 Plan Globalak ukitutako Toki entitateekin eta haiek inplanifikazio eta elkarlan zehatza ezartzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hezkuntzaren aldeko Munduko Ekintza Astearen ospakizunarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Hezkuntzaren aldeko Munduko Ekintza Astearekin bat egiten du, eta bere egiten du “#MilaMilioiAhots” goiburua.

2. Konpromisoa hartzen du, bere eskumener esparruan, hezkuntzarako aurrekontuaren igoerak ziurtatzeko, pertsona eta talde ahulentzako lehentasunarekin.

3. Konpromisoa hartzen du bere eskumener esparruan jarduteko, gutxien garaturiko herrialdeen zorra arintzea xede, hezkuntza bezalako oinarritzko zerbitzu publikoetan inbertitzeko neurri pizgarriak barne harturik.

4. Konpromisoa hartzen du sustatzen jarraitzeko Nafarroak garapenerako lankidetzaren eta nazioarteko solidaritatearen alorretan darabilen politika, herrialde txiroetako komunitateetan giza garapena aldezte aldera eta larrialdi humanitario-ko egoeren ondoriozko efektuak arintzen laguntze aldera, hala nola Covid-19aren pandemiaren ondoriozkoak, bai eta Nafarroan herritartasun glo-

balerako sentsibilizazioko eta hezkuntza eraldatzaileko urratsak egiteko. Hori guztia, komunikazio- eta partaidetza-bideak mantenduz Parlamentuaren eta garapenerako lankidetzan nahiz nazioarteko solidaritate-zereginetan Nafarroan etengabeko lanean diharduten garapenerako gobernu kanpoko erakundeekin, kolektiboekin eta erakundeekin artean.

5. Konpromisoa hartzen du, bere eskumener esparruan, lanean aritzeko garapen jasangarrirako helburuen 2030 Agendako helburuak lortzearen; oso bereziki, hezkuntza-helburuak, talde politiko guztiek berriki sinaturiko Txirotasunaren aurkako Hitzarmenak jasotzen duen bezala.

6. Konpromisoa hartzen du behar bezala artatzeko irakasletza-lanbidea. Irakaslerik gabe, Espainian ez legoke modurik kalitatezkoa, ekitatezkoa eta inklusiboa den hezkuntza bat lortzeko.

7. Eskertu egiten du hezkuntza-komunitate osoak eginiko ahalegina, krisi sanitario honek nafar ikasle guztiei ekarritako hezkuntza-ondorioak arintzekoa”. (10-21/DEC-00019).

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu amiantoaren kentzeko ekintza-planen garapenean aurrerapausoak ematen segitzea.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

«Nafarroako Parlamentuak:

1. Beharrezkotzat jotzen du amiantoaren kentzeko ekintza-planen garapenean aurrerapausoak ematen segitzea.

2. Oinarritzotzat jotzen du gure Komunitatean amiantoaren eraginpean egondako langileen osasuna zaintzeko programei eustea.

3. Adierazten du aldeztu egiten duela estatu-mailan funts bat sortzea, amiantoaren biktimei konpentsazioak emateko.

4. Aintzatetsi egiten du amiantoaren biktimei Nafarroako elkarteekin ezinbesteko lana, hala nola ANANAR eta ADAVANena.

5. Bere babesa adierazten die amiantoaren ondoriozko minbizien biktimei diren guztiei, bai eta haien familiei eta lagunei ere, eta konpromisoa hartzen du haien interes zilegien alde jarduteko.

6. Bere fatxada kolore grisez argituko du 2021eko apirilaren 30ean, Amiantoaren biktimei Eguna ospatzen dela-eta». (10-21/DEC-00020)

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere doluminak eta txera adierazten baitizkie David Beriain nafar kazetariaren, Roberto Fraile kamerariaren eta iparrirlandar kooperante baten familiei eta hurbilekoei. Aipatuak talde armatu baten eskuetan erailak izan ziren Burkina Fason dokumental bat grabatzen ari zirelarik.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko apirilaren 28an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere doluminak eta txera adierazten dizkie David Beriain nafar kazetariaren, Roberto Fraile kamerariaren eta iparrirlandar kooperante baten familiei eta hurbilekoei. Aipatuak talde armatu baten eskuetan erailak izan ziren Burkina Fason dokumental bat grabatzen ari zirelarik.

2. Aitortzen du kazetari nafar nazioartekoentako baten lana, ausardia eta ondare izugarria, bere komunikazio-lanaren muina izan baitzen

munduan barrena gertatzen diren errealitate zailenei eta gatazka gogorrei ahotsa ematea.

3. Kazetarien lanarekiko eta komunikazio-lana gatazka-guneetan egoera zailenetan egiten dutenekiko babesa eta konpromisoa adierazten du.

4. Minutu bateko isilunea eginen du ostegun honetan, apirilak 29, Osoko Bilkuraren hasieran, erasoaldi berean erail dituzten David Beriain kazetariaren, bere lankide Roberto Fraile kamerariaren eta iparrirlandar kooperantearen oroimez”. (10-21/DEC-00021)

Iruñean, 2021eko apirilaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten baitu Israelgo Estatuak iragan apirilaren 13an Zisjordanian Juana Ruiz Sánchez langile humanitarioa aurretiazko akusaziorik gabe atxilotu izana.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko apirilaren 29an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu egiten du Israelgo Estatuak iragan apirilaren 13an Zisjordanian Juana Ruiz Sánchez langile humanitarioa aurretiazko akusaziorik gabe atxilotu izana.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babes osoa eskaini nahi die Juana Ruiz Sánchez andrearen senitartekoei eta lagunei”. (10-21/DEC-00023).

Iruñean, 2021eko apirilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Antzingo Lokiz Eskola Publikoko jantokiaren kudeaketari buruzkoa.***PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, Antzingo Lokiz Eskola Publikoko jantokiaren kudeaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hezkuntza Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Hezkuntza Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Antzingo Lokiz HLHIPko jantokiak berariazko kudeaketa du, tokiko produktuak erabiltzea eta jasangarritasuna bermatzen baititu. Gurasoen Elkarrekin esan digunez, oraintsu atera diren baldintza-agiriekin zailagoa egiten dute gaur egungo kudeaketarekin jarraitu ahal izatea. Hori dela eta, honako hau jakin nahi dut:

Hezkuntza Departamentuak kontuan izan al du berariazko egoera hori eta berma al dezake baldintza-agiri berriei ikastetxeak tokiko produktuak kontsumitzen jarraitu ahal izatea eta gaur egungo eredu jasangarria mantendu ahal izatea?

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

---

**Galdera, Belosoko Hegoaldeko Erripan alokairu sozialerako 93 etxebizitza eraikitzeari buruzkoa.***MARÍA ARANZASU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzasu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, Belosoko Hegoaldeko Erripan alokairu sozialerako 93 etxebizitza eraikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Arantza Urpeguik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, batzordean ahoz erantzun dezan:

Zer agertoki irekitzen du Belosoko Hegoaldeko Erripan alokairu sozialeko 93 etxebizitza eraiki daitezkeen bermatzen duen Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren autoak?

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

---

**Galdera, gazteentzat uda honetarako prestatzen ari den aisialdi-eskaintzari buruzkoa.**

*AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, gazteentzat uda honetarako prestatzen ari den aisialdi-eskaintzari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernua zer aisialdi-eskaintza ari da prestatzen gazteentzat uda honetarako?

Iruñean, 2021eko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**Galdera, sexu-indarkeriaren biktimei 24 orduko arreta integrala emateko zerbitzua abian jartzeari buruzkoa.**

*AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, sexu-indarkeriaren biktimei 24 orduko arreta integrala emateko zerbitzua abian jartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakariak, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Zer urrats egiten ari dira sexu-indarkeriaren biktimei 24 orduko arretoa integrala emateko zerbitzua abian jartzeko?

Iruñean, 2021eko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

## **Galdera, Nafarroako Foru Komunitateak Suspertze Planeko birgaitzeko eta hiria berroneratzeko funtsetan parte hartzeari buruzkoa.**

*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateak Suspertze Planeko birgaitzeko eta hiria berroneratzeko funtsetan parte hartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Urpeguik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Garraioetako, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako Ministerioak iragarri ostean birgaitzeko eta hiria berroneratzeko programei esker 7.000 milioi euro inbertituko direla Suspertze Planaren baitan:

Nafarroako Foru Komunitateak zer parte-hartze izanen du funts horien kudeaketan?

Iruñean, 2021eko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

---

## **Galdera, Nasuvinsaren Beloso Hegoaldeko Erripako alokairuko etxebizitzasustapenari buruzkoa.**

*PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, Nasuvinsaren Beloso Hegoaldeko Erripako alokairuko etxebizitzasustapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren orain dela gutxiko auto batek baztertu egiten du, argudio juridiko ugari emanez, Nasuvinsaren Beloso

Hegoaldeko Erripako alokairuko etxebizitza-sustapena kautelaz geldiaraztea, interes orokorra eta etxebizitzak lehenetsi beharreko funtzio soziala aldeztuta. Hori horrela, Nafarroako Gobernuak Europar Batasunaren beste jakinarazpenik jaso al du –izan ere, bizilagunen plataformaren arabera, Europar Batasunak ikerketa bat abiarazi zuen sustapen hori dela-eta– edo autoak orobat aipatzen dituen ingurumen- edo paisaia-inpaktuko ustezko azterlanak aztertu al ditu?

Iruñean, 2021eko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

**Galdera, espetxeko tailer eta batzar errestauratiboei buruzkoa.***JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, espetxeko tailer eta batzar errestauratiboei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Departamentuak zer aurreikuspen darabil Espetxe Erakundeekin sinatutako hitzarmenaren ondorioz 2021ean espetxeko tailer eta batzar errestauratiboak diseinatzeko, taxutzeko eta abian jartzeko?

Iruñean, 2021eko apirilaren 16an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido



## **Galdera, Zigor Betearazpenaren Nafarroako sistemari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, Zigor Betearazpenaren Nafarroako sistemari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako gal-

dera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

1.- Behin azterlana egin eta zerbitzu berria onetsita, Departamentuak zer urrats egingen du Zigor Betearazpenaren Nafarroako sistema definitzeko?

2.- Bertan jasotzen diren funtsezko ekintzak (jada dauzkagun eskumenez gain beste batzuk gehiago hartzea eskatzen ez dutenak) ezartzeko lan egingen duzue gehiago itxoin gabe? Baiezkoan, zer epe darabilzue gogoan hori betetzeko?

3.- Foru Gobernuako Osasuneko, Gizarte Zerbitzuetako eta Hezkuntzako arduradunekin adostu edo landu al dira dokumentuan jasotzen diren funtsezko ekintzak? Ezarri beharreko ekintzak nola koordinatuko dira departamentu horiekin?

4.- Departamentuak zer ekimen abiarazi nahi ditu lan hori koordinatzeko?

Iruñean, 2021eko apirilaren 16an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, Lodosako Cabizgordoko industrialdeari buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Lodosako Cabizgordoko industrialdeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioko Miguel Bujanda Cirauquik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Lodosa Erriberan dago, non Nafarroan langabezia-tasarik makurrenak eta soldatarik baxuenak pairatzen baitira. Estellerriko Erriberan ere bada, non indize horiek are okerragoak baitira, gure erkidegoko per capita errenta okerrenak dituztelako. Pobrezia eta bazterketa indizeei dagokienez lehendabizikoetako bat da, langabezia-tasetan hilez hil txapelduna izateaz gain.

Horri gehitu behar zaio lan bat daukaten bertako biztanleetako askok beste herri batzuetan egi-

ten dutela lan, horrek errenta eskuragarriari begira dakarren pobretzearekin.

Aldi berean, gure ingurunean industria-lurzoririk ez egoteari buruzko albisteak entzuten dira aldiro, bai eta inguruko herri batzuetako industrialdeak handitzeko eskariei buruzkoak ere. Ageri-agerikoa da gure eremu honetan industria-lurzorua behar dugula eduki.

Galdera:

Lodosak noiz izanen du enpresak hartzeko prest Cabizgordoko industrialdea?

Nafarroako Gobernua enpresekin hartu-emanetan egon al da industrialde horretara etor daitezzen?

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **Galdera, espetxe arloko eskumenak Nafarroari eskualdatzeari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, espetxe arloko eskumenak Nafarroari eskualdatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Parlamentuak erabaki bat onetsi zuen 2017ko urriaren 2ko Osoko Bilkuran, zeinaren bidez adierazi baitzuen bere borondatea zela Nafarroak Foruaren Hobekuntzan esleituta daukan Iruñeko espetxearen gaineko eskumen historikoak balia ditzan.

1.- Nafarroako Gobernuak zer urrats edo zer erabaki hartu ditu harrezkero espetxe arloko eskumena lehenbailehen hartzea jorratzeko?

2.-Nafarroako Gobernuak zer urrats edo zer erabaki hartu ditu harrezkero Hezkuntzaren eta Gizarte Ongizatearen arloan duen eskumena balia dezan kalitatezko hezkuntza- eta gizarte-arreta emateko, askatasunaz gabeturiko pertsonen eskubide-berdintasuna bermatuko diena?

3.- Nafarroako Gobernuak zer urrats edo zer erabaki hartu ditu harrezkero preso, preso ohie eta beren senideei bizi baldintza duin batzuk ahalbidetzeko espresuki adierazten ziren arloetan?

Iruñean, 2021eko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, zigor betearazpenaren eredu berriari buruzkoa.**

*JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, zigor betearazpenaren eredu berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak idatziz erantzun dezan:

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak iragan otsailaren 12an emandako prentsaurreko batean aurkeztu zuen “Zigor betearazpenaren Nafarroako ereduaren ildo estrategikoak” izeneko dokumentua. Lehendakari zaren aldetik – hau da, lehendakari zaren Gobernuaren jarrera gisa– zeure egiten al duzu zigor betearazpenaren eredu berri hori?

Iruñean, 2021eko apirilaren 20an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, “Ega-Urederra ibaiak” izeneko Batasunaren Garrantzizko Lekuko Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) kudeaketa-gastuei buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, “Ega-Urederra ibaiak” izeneko Batasunaren Garrantzizko Lekuko Kontserbazio Bereziko Eremuaren (KBE) kudeaketa-gastuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretuak “Ega-Urederra ibaiak” izeneko Batasunaren Garrantzizko Lekua Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu, haren kudeaketa plana onetsi, eta “Urederraren iturburu” (RN-14) eta “Lasiako erreka-zulua” (RN- 13) natura-erreserbak erabili eta kudeatzeko plan zuzentzaileak eguneratzen ditu.

Aipatu foru dekretuaren eranskinean sartu zen KBEa kudeatzeko plana; VIII. apartatuan, Kudeaketa planaren finantzaketa izenekoan, honela dio:

“Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak honako hauek hartuko ditu bere gain:

– Gunearen kontserbazio egoera ona bermatzen duten mantentze eta lehengoratzeko proiektuak gauzatzeko behar diren diru zenbatekoak.

– Ekipamenduak eta kudeaketaren egitura mantentzeko behar diren diru zenbatekoak.

– Erabilerak eta jarduerak mugatzearen ondoriozko kalte-ordainak ordaintzeko behar diren kontu-sailak.

– Plana gauzatzeko eta haren helburuak lortzeko behar diren bestelako kontu-sailak.

Hori guztia ordainduko da horretarako kreditu egokia baldin badago. Beraz, behar diren konpromisoak hartuko dira unean-unean aurrekontuan dagoen diruaren arabera”.

Gauzak horrela, galdera hauek egiten dira:

Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretua onetsi denetik zein dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak edo Gobernuaren gaineko departamentuak ekipamenduak eta kudeake-

taren egitura mantentzera urtero bideratu dituzten zenbatekoak?

Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretua onetsi denetik zein kalte-ordaini egin behar izan die aurre Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak kudeaketa planean jasotako erabilerak eta jarduerak mugatzearen ondorioz?

Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretua onetsi denetik zein dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak edo Gobernuaren gaineko departamentuak gunearen kontserbazio egoera ona bermatzen duten mantentze eta lehengoratzeko proiektuak gauzatzera urtero bideratu dituzten zenbatekoak?

Martxoaren 8ko 16/2017 Foru Dekretua onetsi denetik zein dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak edo Gobernuaren gaineko departamentuak KBE horren kudeaketa plana gauzatzera eta haren helburuak betetzera urtero bideratu dituzten zenbatekoak, aurrekontuko partidez gain?

Iruñean, 2021eko apirilaren 19an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, Allozko (Deierri) lurzatiak biltzeko prozesuari buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Allozko (Deierri) lurzatiak biltzeko prozesuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

– Zertan da Allozko (Deierri) lurzatiak biltzeko prozesua?

– Zer epe aurreikusten dira obra zibila hasi eta bukatzeari dagokienez?

Iruñean, 2021eko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **Galdera, Iruña-Noingo aireportua garatzeari eta bultzatzeari buruzkoa.**

### *GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordean izapidetu dadin Javier García Jiménez jaunak Iruña-Noingo aireportua garatzeari eta bultzatzeari buruz aurkezturiko galdera,

zeina 2021eko martxoaren 9ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu bai zen (10-21/POR-00124).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **Galdera, hezkuntza eleanitza indartze eta hobetze aldera Nafarroako Gobernuak hartu nahi dituen neurriei buruzkoa.**

### *HEZKUNTZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin Jorge Aguirre Oviedo jaunak aurkezturiko galdera, hezkuntza eleanitza indartze eta hobetze aldera Nafarroako Gobernuak hartu nahi dituen

neurriei buruzkoa. Galdera 2021eko apirilaren 20ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00182).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru jurista hautatzea.**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko apirilaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, hona erabakia:

1. Nafarroako Auzitegi Nagusiko Sala Zibil eta Penaleko magistratu-postu bat betetzeko hiru

jurista aukeratzeko hautagaitzak aurkezteko epea **2021eko maiatzaren 17ko 17:30a arte** luzatzea (10-21/ELC-00001).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.**

### **Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda aldatzea**

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren 2021ko apirilaren 13ko Ebazpenaren bidez onetsi zen Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdiaren onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda. Ebazpen hori 2021eko apirilaren 15eko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren web-orrian argitaratu zen.

Apirilaren 23an, Nafarroako Gobernuaren posta telematikoaren bidez, oposizioan parte hartzeko eskabide bat jaso da, onartuta izateko baldintzak betetzen dituena. 2021eko martxoaren 26an Ogasun Departamentuko Erregistro Orokorean presentzialki aurkeztutako eskabidea da.

Horrenbestez, lehendakaritza honek EBATZIDU:

**Lehena.-** Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoretzako teknikarien hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdiko onartu eta

baztertuen behin betiko zerrenda aldatzea. Hona zerrenda:

Txanda librea:

a) *Onartuak:*

Alcuaz Andueza, Xabier

Alvarez Paez, Abel

Apezteguía Calle, Gorka

Asio Goicoechea, Fabián

Ayesta Zardoya, Eudurne

Bergera Lezáun, María Victoria

Casimiro Fernández, Raúl

Elia García, Silvia

Elizalde Insausti, María José

Elizondo Leiva, Montserrat

Eslava Satrustegui, María Eugenia

Ezcurra Fernández, Pablo

Ezquerro Landivar, Jaime

Fernández Martínez, Adrián  
García Izu, Borja  
García Rodríguez, Gabriel  
Garmendía Ariztimuño, María Liernia  
Garro Flamarique, Alberto Juan  
González de Castejón Hermoso, María Jesús  
Iturri Villanueva, Beatriz  
Jalle Alaiza, Carla  
Landivar Roque, Irantzu  
Larrea Oiartzun, Asier  
Mariñelarena Arrondo, Jaime  
Mendia Azpiroz, Eva Virginia  
Mitxaus Barberena, Ainhoa  
Montalvo Arenzana, Inmaculada  
Montilla Colás, Julen  
Moreno González, Itziar  
Ocariz Ripa, Idoia  
Ordóñez Múgica, Ioana  
Pinillos Salvador, María Teresa  
Redal García, María Pilar

Rípodas Beroiz, Beñat  
Royo Baquedano, Cristina  
Ruiz Remírez, Carlos  
Salinas Munarriz, Andrea  
Sánchez Arteaga, María Nieves  
Serrano Arana, Aimar  
Sola Núñez, Miryam  
Tejedor Zozaya, Mateo  
Villanueva Guillén, Lucía  
Zabalza Rípodas, José Miguel

*b) Baztertuak:*

Inor ez.

Igoera txanda:

Inor ez.

**Bigarrena.** Aldaketa hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren iragarki-oholean eta web orrian argitara dadila xedatzea.

Iruñean, 2021eko apirilaren 23an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

